

**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EKONOMIAREN ETA ARAUEN  
KONTROLARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA, KIROLEKO DOPINAREN  
AURKAKO LEGEAREN BIGARREN ALDAKETAREN AURREPROIEKTUARI  
BURUZKOA.**

*-Tramitagune- DNCG\_LEY\_2893/21\_11*

Aztertu da idazpuruan adierazitako proiektuari buruzko espedientean jasotako dokumentazioa, eta, ondoren, honako hau ondorioztatu da:

**1.-** Erreferentziako proiektua Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 10ean egindako bileran onartutako XII. legegintzaldiko (2020-2024) legegintza-egutegiko lege-proiektuen zerrendako 34. puntuan ageri dela. Proiektu horren ekimena Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari esleitu zaio, 2021eko bigarren seihilekorako.

**2.-** Jarduneko instantziak duela ekimena sustatzeko eskumena.

**3.-** Espedienteari erantsitako dokumentaziotik ondorioztatzen dela orain arte ongi bete direla Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak hura egiteko eskatzen dituen betekizunak,

**4.-** Nolanahi ere, eta bat etorri Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoarekin, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak aurreproiektuari buruzko irizpena eman behar duela, onartu aurretik. Horren ildotik, gogorarazi behar da ezen, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.1 artikuluan ezarritakoarekin (lege horren testu bategina Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinarazi behar zaiola zer aldaketa sartzen diren lege-aurreproiektuetan eta xedapen arautzaileen proiektuetan, horiek Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iradokizunen eta irizpen-proposamenen ondorio direnean (*hori betetzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariaren 2005eko urriaren 14ko 2/2005 zirkularrean ezarritakoari jarraituko zaio*)).

**5.-** Aztertutako proiektuak ez du aldaketarik eragingo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren antolamendu-egituran, ez baitu organo berririk sortuko, ez eta lehendik zegoenik ezabatuko edo aldatuko ere.

**6.-** Ez du eragiten Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan. Gai horiek jasota daude Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan (testu bategina azaroaren 17ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen)..

**7.-** Erreferentziako espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, ondorioztatzen da aztertutako proiektuak ez dakarrela giza baliabideen eta baliabide materialen premia berririk, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio honi ez diola sortzen zuzeneko betebeharrak ekonomikorik, erabilgarri dauden aurrekontu-baliabide arruntez gain



finantzaketa gehigarria behar duenik. Beraz, gastuaren aldetik ez du, printzipioz, zuzeneko eta berehalako aurrekontu-eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan.<sup>1</sup>

**8.-** Sarreraren aldetik ez da ikusten eraginik duenik.

**9.-** Aurkeztutako testuari dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- Artikulu bakarraren **zazpigarren paragrafoko** epigrafean aipatzen da 13. eta 14. paragrafoak gehitu behar zaizkiola aldatu nahi den legearen 13. artikuluari, baina 14. eta 15. paragrafoak gehitu nahi dira.

- **Hamalagarren paragrafoak** gehitu nahi dio 5. apartatua aldatu nahi den Legearen 22. artikuluari. Gauzak horrela, artikulua horrek dagoeneko sei apartatu ditu (paragrafo). Orobat, lege horren 22.bis artikulua, behin-behineko etenduraz ari denak (dirudienez, gai hori da erregulazio berriaren xedea), 5. paragrafoa (apartatua) badu.

Orain arte azaldutakoa da erreferentziako proiektuari buruz esan daitekeena.

---

<sup>1</sup> Hala esaten da, esplizituki, prozedura hasteko Aginduaren 4. puntuan, espedienteari erantsitako justifikazio-memoriaren "O" apartatuan -26. orrialdetik 28.era- eta espedientean dagoen memoria ekonomikoaren "AURREKONTU-KARGA" apartatuan -8. eta 9. orrialdeak-.